

OSOKO BILKURA IBILTARIA HERNANIN

Batzar Nagusietako lehendakariak dio “Euskadik bere burua gobernatzeko eredu berri bat behar duela, eskubide historikoak eguneratuz, menpekotasun zentralistarik gabe, eta herriaren erabakia bideratuz”

Ezeizabarrenak “euskara ziurtatzeko elkar hartzeko garaia” dela esan du

Batzar Nagusien Osoko Bilkura Ibiltaria Hernaniko Udaletxean izan da aurten. Xabier Lertxundi alkateak eta udalbatzak egin diete harrera Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietako lehendakariari, Jesus Zaballos, Zelai Amenabarro eta Marivi Eizagirre Mahaikideei, eta Eider Mendoza diputatu nagusiari. Dantzariak ohorezko aureskua dantzatu diete agintariei udaletxeko arkupe aurrean. Ondoren Udaletxeko ekitaldi aretora joan dira Batzar Nagusietako liburuan sinatu ostean.

Saioa hasteko, lehenbizi, Lertxundi alkateari eman dio hitza Batzar Nagusietako lehendakariak, eta jarraian Ezeizabarrenak egin du hitzaldia, Foruen abolizioaren hariari helduz.

Hilaren 21ean Espainiako Gorteek Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foruak indargabetu zituztela 150 urte beteko direla eta, Xabier Ezeizabarrenak Antonio Canovas del Castilloren hitzak aipatu ditu, *“cuando la fuerza causa estado, la fuerza es el derecho”*, eta ziurtatu du gaur egun Trump, Putin, Netanyahu eta ayatolen erregimena eta euskal Foruak ezabatu zituen Canovas “ikuskera berak mugitzen dituztela”, “ez eskubidean oinarritutako legeak, indartsuaren boterean oinarrituak baizik”, “ez bakean eta demokrazian eraikitzen den aginteak, gerran eta zapalketan oinarritzen den botereak baizik”. Ezeizabarrenak argi utzi du hemengo eta kanporako balio duen irizpidea: “Euskadin badakigu irteerarik gabeko bideetan sarten gaituela armen dinamikak” eta “indarkeria eta gerrari ezezkoa” eman die, “nonahi izanik ere”.

Hernaniar jatorriko Manuel Larramendi jesuita andoaindarrari, euskararen eta foruen defendatzaile handiari jarraitu dio Batzar Nagusietako buruak. Euskara dela eta, “euskaldunek elkar hartzea giltzarria zela igarri zion Larramendik”, gogorarazi du eta iritzi bereko agertu da, “Erkidego honetan ofizialtasuna du euskarak, herritarrak euskalduntzeko. Baina ez da frenorik falta. Gai handia da euskara Euskadin. Elkar hartzeko garaia da Gipuzkoan eta gure herrian euskara ziurtatzeko.” Eta Larramendiren beste zutabea, askatasunaren giltza: “Gipuzkoako foru hau hemengo hasierako herriak sortu” zuen, “inork eman gabe”



eta Gaztelak eta Frantziak egindako kalteen aurrean, Larramendiren deia “gure iraupena eta askatasuna bilatzeko”, eta “handik mende batera, foruen abolizioa”, esan du Ezeizabarrenak.

“Foruen deuseztapena gogoratzea ez da ariketa historiko soil bat, ariketa politikoa baizik”, adierazi du Batzar Nagusietako buruak. “Akordio handietatik kanpo geratzeko erabakiak” alboratuz eta “betoen inposaketa” utziz “gatazken politika itoa” gainditzearen alde egin du, erantsiz politika egiteak “akatsak ez errepikatzera deitzen gaituela eta, benetako elkarrizketaren bidez, konponbidea emango duen gure eskubide historikoen eguneraketaren beharra gogoan hartzera, batez ere Europari begira”. Horiek horrela, “Herri honek bere burua gobernatzeko eredu berri bat behar du, menpekotasun zentralistarik gabe, herri ikuspegiarekin, herritarrei hitza emanez eta Euskadiren erabakia bideratuz. Demokrazia duin bat izateko”, nabarmendu du Batzar Nagusietako buruak.

“Elkarrizketa baliotsua” dela eta “politika egiteko era heldua”, azpimarratu du, “inoiz ez erraza baina beti beharrezkoa herritarren ona bilatzeko”, izan ere “beharra eta nahia uztartzean, ahal izatea sor daiteke elkarrizketatik”; hala “lortu da bi aurrekontu onartzea, erreforma fiskala, toki entitate txikien arauberritzea eta krisiei erantzuteko neurriak”, “adostasun zabalez” edo “aho batez”. Ezeizabarrenak adierazi du “hauteskunde-atariak ez duela erraz zabaltzen akordioen atea, baina beharraren eta ahalaren artean, borondatea dago. Gida dezala gure politika gipuzkoarren onak, Gipuzkoak eta Euskadik behar dutenari erantzuteko borondatez” eta “Larramendiren «ezina egina» egia izateko itxaropenaz”.

Azkenik, Xabier Ezeizabarrenak hurrengo Bilkura Ibiltaria deitu du, Elgoibarren izango dena datorren urteko uztailaren 2an. Klarinek Agur Jaunak joz amaitu da Hernaniko saioa.

Hernani, 2026-07-02

